Ante la visita de la Comisión de Infraestructuras del Parlamento Vasco a las obras de la pasante

SATORRALAIA :: 20/01/2020

Satorralaia convoca el jueves 23 una concentración ante la visita de la Comisión de Infraestructuras del Parlamento Vasco a las obras de la pasante de Metro

Satorralaiak kontzentrazioa deitu du urtarrilak 23 ostegunean Eusko Legebiltzarreko Azpiegitura Batzordeko parlamentariek Donostiako Metroaren obrara egingo duten bisitaren aurrean /

Satorralaia bizilagunen mugimenduak kontzentrazioa egingo du datorren urtarrilak 23 ostegunean Eusko Legebiltzarreko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Batzordeak Donostiako Metroaren obrara egingo duen bisitaren aurrean. Protesta ekintza hori goizeko 10etan Pio Baroja etorbidean Metroaren obragunearen ondoan egingo dugu (Costa Vasca Hotelaren eta Pio Barojako Polikiroldegiaren artean dagoena), bertan elkartuko diren parlamentarien eta Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakundeko zuzendarien aurrean Donostian Metroa eraikitzea zeharo behargabekoa, baliabideen xahutzailea eta Euskal Gobernuak herritarren inongo partehartzerik gabe inposatu duen egitasmoa delako gure arbuioa adierazteko.

Metroaren pasantea arrazoigabekeriaren bidetik doa aurrera. Donostian lurrazpiko metro bat eraikitzea xahuketa ekonomiko itzela da --Jaurlaritzak obrarako 40 milioi eurotik gorako partida bat bideratzen du aurtengo aurrekontuetan—eta eraikuntza-lanak hirian nozitzen ari garen jarduera urbanisitiko erasokorrenen artean nabarmentzen dira. Egitasmo honek ez du justifikaziorik hiriko mugikortasunaren hobekuntzaren ikuspegitik, Dbus kaltetuko duelako batez ere, autoen trafikoa apenas gutxitu gabe.

Satorralaiak salatu nahi du, bestalde, datorren ostegunean parlamentariek obrara egingo duten bisita hori, antza denez, joan den abenduaren 11ean Eusko Legebiltzarreko Azpiegitura Batzordean bizilagunen mugimendu honek Metroaren egitasmoan antzemandako irregulartasun larrien berri emateko egindako agerraldiari ETSek ematen dion erantzuna da, hain zuzen ere irregulartasun larri horien gainean ke-gortina bat bota asmoz. Honi dagokionean, Fiskaltzak Donostiako Metroaren proiektuan Pio Barojan aurrikusten den larrialdi irteeraren inguruan ikerketa bat abian jarri duela gogoratzen dugu, Satorralaiak salatu duenez larrialdi-irteera horrek trenbide-tunelen segurastunaren nahiz bidaiarien ebakuaziorako baldintzen inguruan indarrean daude araudi guztiak urratzen dituelako.

Hori denagatik, datorren ostegunean goizeko 10etan parlamentarien bisitaren aurrean egingo den kontzentraziora biltzeko dei egiten dugu "UN METRO EN DONOSTIA ¿PARA QUE? BEHARGABEKOA - XAHUTZAILEA - INPOSATUA!" lemapean.

OHARRA: Pio Barojara joateko Dbusen 16-Igeldo lineako autobusa har daiteke, goizeko 9'35etan Gipuzkoa Plazan (kontuz: linea horren maiztasuna 30 minutukoa baita), eta "Pio Baroja Polikiroldegian" egiten duen geldiunean jeitsi, kontzentrazioaren lekutik hurbil.

Satorralaia bizilagunen Mugimendua

Satorralaia convoca el jueves 23 una concentración ante la visita de la Comisión de Infraestructuras del Parlamento Vasco a las obras de la pasante de Metro:

El movimiento vecinal Satorralaia realizará el proximo jueves 23 de enero una concentración ante la visita de la Comisión de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Parlamento Vasco a las obras de la pasante de Metro. El acto de protesta tendrá lugar a las 10h junto a la zona de obras del Metro en el Paseo de Pio Baroja (entre el Hotel Costa Vasca y el Polideportivo Pío Baroja) para manifestar ante la comitiva parlamentaria y la directiva de Euskal Trenbide Sarea (ETS) el rechazo a esta obra absolutamente innecesaria, derrochadora de recursos e impuesta por el Gobierno Vasco sin ninguna participación social.

La pasante de Metro avanza por la vía se la sinrazón. La construcción de un metro subterráneo en Donostia es un enorme derroche económico --los presupuestos del Gobierno Vasco destinan este año más de 40 millones de euros a la obra—y el proyecto carece de justificación en términos de mejora de la movilidad urbana, porque perjudicará principalmente a Dbus sin reducir apenas el tráfico de coches. Su ejecución resalta entre las actuaciones urbanísticas más agresivas que están afectando la ciudad.

Satorralaia denuncia asimismo que la organización de la visita parlamentaria del próximo jueves a las obras es al parecer la respuesta de ETS a la comparecencia realizada el pasado 11 de diciembre por este movimiento vecinal en la Comisión de Infraestructuras del Parlamento Vasco para dar cuenta de las graves irregularidades denunciadas ante la Fiscalía en relación a la pasante de Metro, irregularidades sobre las que ETS pretende lanzar una cortina de humo. Recordamos a este respecto que la Fiscalía ha abierto diligencias de investigación en relación a los graves incumplimientos de las normativas de seguridad y condiciones de evacuación de viajeros/as que Satorralaia ha denunciado en la Galería de Salida de Emergencia del Metro proyectada en Pio Baroja.

Por todo ello, llamamos a participar en la concentración que realizaremos ante la visita parlamentaria portando una pancarta con el lema: "UN METRO EN DONOSTIA ¿PARA QUE? BEHARGABEKOA - XAHUTZAILEA - INPOSATUA!". NOTA: Para desplazarse a Pio Baroja, es posible coger la Linea 16 Igeldo de Dbus, con salida a las 9'35h desde la Plaza de Gipuzkoa (atención: servicio cada 30 mn) y bajar en la Parada "Polideportivo Pio Baroja", próximo al lugar de la concentración.

Movimiento vecinal Satorralaia

---

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/ante-la-visita-de-la